

2022.eko irailaren 24 eta 25a

Adiskideok:

Kurtsoaren hasieran, begiratu deiogun arretaz gure kristau alkarteari. Paisaia askotariko, anitz eta koloretsua dogu aurrez aurre. Aurpegi ezagunez, katekistaz, begirale gaztez, liturgian laguntzen dabenez, Caritaseko boluntarioez, helduen taldeez beteta dago eta horreetako askok Kontseilu eta Ekipo Ministerialetan ordezkatzen gaitue.

Lagun bakotxak, bere historia, kultura eta izaeragaz, hartu-emon desbardina dau besteakaz, alkarteagaz eta Jainkoagaz. Horrek ikusiarazoten deusku, beraz, gure bizikidetzaz askotariko loturez, sentipenez, bizipenez eta fedea ospatzeko erez osatuta dagoana. Horixe gara eta horretara deitzen gaitu Frantzisko aita santuak: «etorkizuna ez da kolorebakarra, etorkizuna gauzatuko bada, bakotxak emon daikenaren aniztasun eta desbardintasunean begiratzera ausartu behar dogu. Benetan beharrezkoa dau gure giza familiak guztiok bat eginda oreka eta bakez bizitzen ikastea, danok bardin-bardinak izan behar dogula pentsatu barik» (FT 100).

‘Mila Kolore - Hainbat Balore’ kurtsoaren hasierako kanpaina honek, Bizkaiko kristau alkartea osatzen dogun norbanako eta ekimen anitz eta aberasgarriak galdu barik, beti be gure Eleiza Nazaretoko Jesusengan sustraitzen dala eta Honenganako konfiantza eta atxikimendua bereizgarri dauala jakinda, “alkarregaz bide egitea” ezinbesteko dala azpimarratu gura deusku.


“Autormen egingo dozue, Neugaz zagoze-eta” (Jn 15, 27)

Gainera, “LA FUERZA DEL TESTIMONIO - LEKUAN LEKUKO” Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmo (EEE) barriaren senari lotuta dago. Deia da, munduan dogun lekutik, geure begiradatik, geure karismetatik, pozik ospatuz eta itxaropenez zerbitzatuz, barri onaren lekukotasun bizi izan gaitzan.

lazko kurtsoan lez, baterako diru-batzea egingo dogu eta batu daitena Caritasen eta parrokien artean erdibanatuko dogu, batzuk zein besteek euren beharriaz aurre egin deien. Ondasunen banaketaren, baterako ahaleginaren alde egingo dogu, senidetan eta bizitasunaren adierazpen eta zeinu lez.

Domeka honetan, Etorkin eta Errefuxiatuaren Munduko Eguna be ospatuko dogu, “Etorkizuna etorkin eta errefuxiatuakaz batera eraiki” goiburuen haritik, bide batez, gure Eleizaren alderdi abegitsua sendotuz.

Besarkada estu bat.



Kerman Lopez
Bikario Nagusia



Carlos Burgos
Caritas Bizkaiko Zuzendaria

OHARRA. Zuen laguntza behar dogu hainbat gauza antolatzeko:

- 1- Diru-batzea irailaren 24-25eko asteburuan egingo da. Ezinbestekoa da motibatzea (aurreko asteko Eukaristietan), baterako diru-batze hori errazteko. Ekonomia-egoera korapilatsua da eta ahalegina eskatzen deusuegu sasoiz antolatzeko.
- 2- Kanpainako muralak beirate kaleidoskopioa irudikatzen du. Gogoan eta begi-bistan izan kurtso osoan zehar.
- 3- Ospakizunean bertan, iragarpen, ospakizun, zerbitzu eta alkartasunaren eremuan boluntario lez jarduten daberen pertsonen “balketa” egitea eskatzen deusuegu.
- 4- Eskaria, azkenik, “GOAZEN” kurtso hasierako ekitaldian parte hartu daizuen eta beste batzuei deialdia egin deiozuen. Jesuitek Indautxun daberen ikastetxean izango da irailaren 24ko goiz osoan. Aldez aurretik izena emon beharko da topaketan zein bazkarian parte hartzeko.

Mila esker!

24 y 25 de septiembre de 2022

Estimadas amigas, estimados amigos:

Comenzamos el curso invitándonos de nuevo a observar con delicadeza nuestra comunidad cristiana. Veremos un paisaje diverso, plural, multicolor. Está llena de caras conocidas, catequistas, monitores jóvenes, personas que colaboran en la liturgia, voluntariado de Caritas o de grupos de adultos, muchas nos representan en los Consejos y Equipos Ministeriales.

Cada persona, con su historia, su cultura y su forma de ser, se relaciona de forma distinta con las demás, con la propia comunidad, con el propio Dios. Entonces nos daremos cuenta de que nuestra convivencia está compuesta por diversidad de vinculaciones, de formas de sentir, vivir y celebrar la fe. Eso somos y a eso nos anima el papa Francisco: «el futuro no es monocromático, sino que es posible si nos animamos a mirarlo en la variedad y en la diversidad de lo que cada uno puede aportar. ¡Cuánto necesita aprender nuestra familia humana a vivir juntos en armonía y paz sin necesidad de que tengamos que ser todos igualitos!» (FT100).

Esta campaña, con la que iniciamos el curso, Mila Kolore - Hainbat Balore, nos subraya la necesidad de “caminar juntos” desde la rica diversidad de personas e iniciativas que conformamos la comunidad cristiana en Bizkaia, siempre conscientes de que nuestra Iglesia se enraíza en la confianza y adhesión a Jesús de Nazaret. ¡Comulgar con Él nos hermana y nos hace comunidad responsabilizada de dar testimonio del amor de Dios!

“Daréis testimonio porque estáis conmigo” (Jn 15,27)

Se inspira también esta campaña diocesana en la puesta en marcha del nuevo Plan Diocesano de Evangelización (PDE) “LA FUERZA DEL TESTIMONIO - LEKUAN LEKUKO”. Una invitación a que, desde nuestro lugar en el mundo, desde nuestra mirada, desde nuestros carismas, celebrando con alegría y sirviendo con esperanza, seamos testimonio vivo de la buena noticia.

Planteamos, como el curso pasado, una colecta conjunta que se destinará, a partes iguales, para la acción de Caritas y para el sostenimiento del resto de necesidades parroquiales. Apostamos así por la comunión de bienes y por el esfuerzo compartido como expresión fraterna y signo de nuestra vitalidad.

Celebramos también este domingo la Jornada Mundial del Migrante y del Refugiado con el lema “Construir el futuro con los migrantes y los refugiados” que nos permite reforzar la necesaria dimensión acogedora de nuestra iglesia.

Recibid un cálido abrazo.



Kerman López
Vicario General



Carlos Bargos
Director de Caritas Bizkaia

NOTA. Os pedimos apoyo para organizar algunas cosas:

- 1- La colecta se realiza el fin de semana del 24-25 de septiembre. Necesitamos motivar (durante las eucaristías de la semana anterior) para facilitar la colecta conjunta. La situación económica es compleja y os pedimos este esfuerzo para organizarlo con tiempo.
- 2- El mural de campaña simula una vidriera caleidoscopio. Os sugerimos tenerlo presente y visible durante el curso.
- 3- En la propia celebración os invitamos a realizar el “envío” a todas aquellas personas que realizan tareas de voluntariado en los ámbitos del anuncio, celebración, servicio y comunión.
- 4- Os pedimos, por último, que estéis al tanto de participar e invitar al acto de principio de curso pastoral diocesano GOAZEN que tendrá lugar en el Colegio Jesuitak Indautxu durante toda la mañana el sábado 24 de septiembre. Habrá que inscribirse previamente tanto al encuentro como a la comida.

Mila esker!